

DERRIGORREZKO  
BIGARREN  
HEZKUNTZA



2000ko ARGITALPENA


## **DBH, hezkuntzako beste etapa bat**



Lehen Hezkuntza bukatu ondoren, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) egiten hasiko zara. Osotara, lau (4) kurtso ditu, 2 kurtso 2 ziklotan banatuak.

DBH egiten hasiko zara 12 urte betetzen dituzun ikasturtean eta 15 urte beteak dituzula bukatuko duzu.

## DBH hezkuntza sisteman



## Zer ikas dezaket DBHn?

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak, oro har, kulturaren oinarritzko osagaiak eskaini beharko dizkizu eta horrekin batera prestakuntza emango dizu edozein herritarren modura eskubideez baliatzeko eta beharkizunak betetzeko, bizitza aktibora igarotzeko, eta erdi mailako berariazko lanbide heziketa edo batxilergoa egiteko.



DBHk lagundu beharko dizu prestakuntza integrala jasotzen; horretarako, zeure burua garatzeko gaitasun eta trebetasun orokor batzuk landuko dituzu bost esparru hauetan:

- jakintzen eskuratzea
- zeure gorputzaren garapena eta koordinazioa
- afektuen esparrua
- pertsonen arteko harremanak
- gizarteratzea

Etapa honetan prestakuntza oinarri zabala eskuratuko duzu, hain zuzen ere arestion aipatu ditugun gaitasunak eta trebetasunak garatzen eta praktikan jartzen lagunduko dizutenak.

# Ikasketa arloak eta ordutegiak

Etapa honetan **bi (2) ziklo** daude; ziklo bakoitzak **bi (2) kurtso** ditu eta horietan **jakintza arloak** eta **irakasgaiak** ikasten dira.



## HIZKUNTZA EREDUAK

DBHko arloak eta irakasgaiak eredu hauetan ikas ditzakezu:

**G eredia** (gaztelania hutsez)

**D eredia** (euskaraz)

**A eredia** (gaztelaniaz, Euskal Hizkuntza eta Literatura arloa (3 ordukoa) barne)



## ORDUTEGIAK

Asteko eskola ordutegia hau da: **29** irakaste saio eta tutoretza saio bat.

Esan dugu DBHk lau kurtso dituela; kurtso horietan irakasgai batzuk nahitaezkoak dira eta beste batzuk aukerakoak.

$$\begin{array}{cccc} \text{G} & 26 & + & 3 & + & 1 \\ \text{eredua} & \text{nahitaezkoak} & & \text{aukerakoak} & & \text{tutoretzakoa} \end{array}$$

$$\begin{array}{cccc} \text{D} & 27 & + & 2 & + & 1 \\ \text{eredua} & \text{nahitaezkoak} & & \text{aukerakoak} & & \text{tutoretzakoa} \end{array}$$

Ikastetxeek A ereduko irakaskuntza (gaztelaniazko irakaskuntza gehi Euskal Hizkuntza eta Literatura arloa) bi eratan antola dezakete:

- Gaztelaniaz irakasteko ereduan egiten den bezala baina Euskal Hizkuntza eta Literatura irakasgaia aukerako irakasgaiei dagozkien orduetan ikasiz.
- Euskaraz irakasteko ereduan bezala (D eredia).

$$\begin{array}{cccc} \text{A} & 26 & + & 3 & + & 1 \\ \text{eredua} & \text{nahitaezkoak} & & \text{Euskal} & & \text{tutoretzakoa} \\ & & & \text{Hizkuntza} & & \\ & & & \text{eta Literatura} & & \end{array}$$

$$\begin{array}{cccc} \text{A} & 27 & + & 2 & + & 1 \\ \text{eredua} & \text{nahitaezkoak} & & \text{aukerakoak} & & \text{tutoretzakoa} \end{array}$$

**Oharra:** datu hauek lehen hiru kurtsoetarako balio dute. 4. kurtsoko ordutegirako, aldiz, ikus hurrengo laukia.


NAHITAEZKO ARLOAK	KURTSOAK							
	GAZTELANIA (G EREDUA)				EUSKARA (D EREDUA)			
	1.	2.	3.	4.	1.	2.	3.	4.
Natur Zientziak, Biologia eta Geologia, Fisika eta Kimika	3	3	4		3	3	3	
Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia	3	3	3	3	3	3	3	3
Matematika*	4	3	4	4	4	4	4	3
Gaztelania eta Literatura	4	4	4	4	3	3	3	3
Euskal Hizkuntza eta Literatura (A eta D ereduak)					3	3	3	3
Atzerriko Hizkuntza	3	3	3	3	3	3	3	3
Gorputz Hezkuntza	2	2	2	2	2	2	2	2
Teknologia	2	3			2	2		
Musika	3		2		2		2	
Plastika eta Ikus-hezkuntza		3	2			2	2	
Erljioa / H.J.A. **	2	2	2	2	2	2	2	2
Etika				2				2
<b>AUKERAKOA</b>	3	3	3	9	2	2	2	8
<b>TUTORETZA</b>	1	1	1	1	1	1	1	1
<b>ASTEKO ORDUAK, GUZTIRA</b>	30	30	30	30	30	30	30	30

\* Ikastetxeek 4. kurtsoan Matematika irakasgaia bi modutan eman dezakete: Matematika A eta Matematika B. Horietako bakoitza ondorengo ikasketa mota ezberdinetara bideraturik dago. Komeni da zeure ikastetxean galdetzea eta horren gaineko informazio zabalagoa jasotzea.

\*\* Erljioa arloa nahitaezkoa da zeure gurasoek edo tutoreek hala eskatzen badute. Horrelakorik egiten ez badute, Hezkuntza Jarduera Antolatua (HJA) hartu beharko duzu.

# Aukerako irakasgaiak

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek, nahitaezko irakasgaietz gain, beste irakasgai batzuk eskaintzen dituzte. **Aukerako irakasgaiak** dira; **1. 2. eta 3. kurtsoetan bakarra aukera dezakezu** eta **4.ean, aldiz, hiru.**



Aukerako irakasgaiak helburu hauek dituzte:

- Zuk zeuk dituzun asmo edo beharrei erantzutea, adibidez, atzerriko bigarren hizkuntza bat ikastea edo bereziki gustuko duzun arlo bat ikasi eta sakontzea.
- Arloen eta irakasgaien ezagutza handitzea, prestakuntza eta lan aldetik zure etorkizuna bideratzeko balioko duten erabakiak errazago har ditzazun.
- Geroago egin ditzakezun ikasketetarako prestakuntza zabaldu eta hobetzea.



Kurto bakoitzean aukerako irakasgaiak hautatzeko orduan, ondoko lauki honetan agertzen dena kontuan izan beharko duzu.

AUKERAKO IRAKASGAIAK	IRAKASGAIK			
	1.	2.	3.	4.
Atzerriko Bigarren Hizkuntza	●	●	●	●
Pentsatzen Ikastea	●	●		
Ipuin Lantegia	●	●		
Gizarte Trebetasunak	●	●		
Matematika Aplikatuaren Lantegia	●	●		
Plastika eta Ikus-hezkuntza	●			●
Musika		●		●
Zure ikastetxeak diseinaturiko bat	●	●	●	●
Informatika			●	●
Geografia Ekonomikoa				●
Kultura Klasikoa A (3.ean) eta B (4.ean)			●	●
Lanbide Hastapena Helduarora Igarotzea				●
Teknologia			●	●
Biologia eta Geologia				●
Fisika eta Kimika				●
Literatura Unibertsala				●

- Atzerriko bigarren hizkuntza ikastea erabakitzen baduzu, kontuan izan etapa osoan ikasi beharko duzula.
- Irakasgai hau ikas dezakezu DBHko kurtso batean edo gehiagotan.
- Irakasgai hauek ikas ditzakezu eskaintzen diren zikloko kurtso batean.
- Irakasgai horietako bi 4. kurtsoan ikasi beharko dituzu. Aukerako irakasgai horiek ikasteko, ikastetxeek ikastalde itxiak antolatzekeo eskaintza egin dezakete.



## DBHko 4. kurtsoa, oso urrats garrantzitsua

DBH ikasten hasten zarenean, konturatuko zara lehenengo kurtсотik beretik hasita zenbait irakasgai aukeratu eta ikasteko aukera izanen duzula. Horren helburua da pixkana-pixkanaka zuk zeuk ezagutzea zein diren zure lehentasunak eta zuk zeuk zeure erabakiak hartzea. Kontuan izan hautatzen dituzun aukerako irakasgai horiek argibideren bat eskain diezazuketela etorkizunean lanbidea aukeratzeko orduan.

3. kurtsoa bukatzearekin batera **4. kurtsoan ikasi beharko dituzun aukerako hiru irakasgaiak** hautatu beharko dituzu. Oso erabaki garrantzitsua denez, hartu denbora eta hausnartu; horretarako, zeure gurasoen eta tutoreen laguntza izan dezakezu.

Ikastetxe bakoitzak, bere ikasle kopuruaren eta egituraren arabera, aukerako irakasgaiak hautatzeko orduan aukera desberdinak eskaini diezazkizuke.

Hartu dituzun irakasgaiak edozein izanik ere, gaindituz gero, Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua erdietsiko duzu. Ondoren Batxilergoa edo Erdi Mailako Lanbide Heziketako Zikloak ikas ditzakezu.

Kontuan izan zeure Ikastetxeak eskainiko dizun aukerak lehentasunez halako Batxilergo modalitate baterako edo Erdi Mailako Berariazko Lanbide Heziketako Zikloen multzo baterako prestatuko zaituela.

Beraz, erabaki aurretik argibideak eskatu.



## **Ikasleen aniztasunari erantzutea**

Arestion aipatu dugun bezala, garbi dago pertsona guztiok ez ditugula ikasteko gaitasun berberak. Hori dela eta, DBH eskaintzen duten ikastetxeek jarraipen talde berezia dute –batez ere irakasleak eta orientatzaileak–. Talde horrek ikasle bakoitzaren lanaren jarraipena egiten du eta egoera bakoitzari egokitzen zaion lan egitasmoa prestatzen du, ikasleek etaparen helburu orokorrak erdiets ditzaten eta, finean, titulua eskura dezaten.

Zenbait ikaslek behar jakinak izan ohi dituzte; horiei erantzuteko prestatu dira **curriculum egokitzapenak**. Arlo jakin baten curriculumaren aldaketak dira eta edukiak, helburuak eta ebaluazio irizpideak ukitzen dituzte. Helburua hau da: ikasteko arazoak dituzten ikasleek aurrera egitea eta etaparen helburu orokorretan bildutako gaitasunak lantzea. Beraz, curriculum arruntetik abiatuz, ikasle jakin batzuen behar zehatzei erantzuteko balio dute.

Ikastetxeek **Curriculum Aniztasuna** eskaini dezakete etapako helburuak erdietsi ez dituzten ikasleendako, hau da, 16 urtez gorakoek Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua lortzeko. Proposamena desberdina da; ikasleei prestakuntza eskaini nahi zaie lanbide batean hasteko eta helduarora igarotzeko. Hori dela eta, curriculumak hautatua, berariazkoa eta errealista da, ikasle horiek bakarka hartuta dituzten interes eta motibazioak kontuan hartzen saiatzen baita eta xedea etapako helburu orokorrak erdiestea baita.



## Ebaluazioa

Zure ikasketen bilakaera balioztatzeko, irakasle taldea ebaluazioaz baliatzen da, bai, bakarka, ikasi dituzun arlo eta irakasgaietako bakoitzean jaso dituzun ezagutzak zein diren ikusita, bai, osotara, etapako helburu orokorrak zenbateraino erdie-tsi dituzun jakinda.

Ebaluazioa bi eratak da: lehena, kalifikazioa eta, bigarrena, oharrak. Zure jakitatearen eta gaitasunen araberakoa da **kalifikazioa** (gutxiegi, nahikoa, ongi, oso ongi eta bikain); **oharrek**, aldiz, arlo eta irakasgaien aurrean zure jarrera zehazteko balio dute (interesa, ahalegina, errendimendua, etab.).

Ebaluazioa etengabea da; **hiruhilean behin**, irakasle taldeak zure lana balioztatuko du (ikasi duzun arlo eta irakasgai bakoitzeko kalifikazioa eta oharrak). Hori egin ondoren, emaitza (**kalifikazio liburua**) zure fami-liari igorriko dio.

**Azken ebaluazioa** etengabeko ebaluazioaldi horren bukaera izanen da eta horretan erabakiko dira arlo eta irakasgaietan zer kalifikazio atera duzun eta hurrengo kurtsoa igaroko zaren edo ez. Azken ebaluazioak hurrengo zikloa eta kurtsoak bukatu ondoren egin ohi dira:

- lehen zikloa
- hirugarren kurtsoa
- laugarren kurtsoa

## Hurrengo kurtSORA igarotzea eta kurtso berean gelditzea

Hurrengo kurtSORA igarotzeko, horretarako gai zarela frogatu beharko duzu. Azken ebaluazioek balio dute irakasle taldeak zure jakintza maila eta bilakaera balioztatu ondoren, erabakia hartzeko. Kurtsoz igarotzen bazara aurreko kurtSoko irakasgaiak gainditu gabe utzita, horiek errekuPeratzeko plangintzari jarraitu beharko diozu.

Irakasle taldeak erabakitzen badu zu zeu ez zarela gai kurtsoz igarotzeko, kurtso horretan berean beste urte bat egon beharko duzu. Egoera hori behin bakarrik gerta daiteke DBHn.

Salbuespen gisa, hurrengo kurtSORA beste behin ez igarotzea gerta liteke baina inoiz ez ziklo berean.



## Titulazioa

Behin DBHko 4. kurtsoa bukatu ondoren, etapako helburuak erdietsi badituzu, "Bigarren Hezkuntzako Graduatu" titulua jasoko duzu. Titulu horrek balioko dizu Batxilergoa edo Erdi Mailako Lanbide Heziketako Zikloak ikasten hasteko.

Oso komenigarria da zeure gurasoek eta zuk zeuk Bigarren Hezkuntzako Graduatu tituluarekin batera emango dizkizuten orientabideak egoki balioztatzea, erabakirik zuzenena har dezazun.

DBHk ezarri helburuak lortu ez badituzu eta, ondorioz, titulurik lortu ez baduzu, lasai, ikasten edo zeure burua prestatzen segitzeko beste bide batzuk badituzu; horiexek berak dira hurrengo atalean agertuko dizkizugunak.

# Bigarren Hezkuntzako Graduatua



## Eta DBH bukatu ondoren, zer egin dezaket?

Behin DBH bukatu ondoren, "Bigarren Hezkuntzako Graduatu Titulua" lortzen baduzu edo titulu hori lortu gabe, bi aukera izanen dituzu:

- Zeure prestakuntzarekin segitzea.
- Lana bilatu eta lanean hastea.

Ikasten segitu nahi baduzu, komeni da halako edo bestelako espezialitateko prestakuntza egingo duzunez, faktore hauek kontuan izatea:

- Zein ikasketa mota gustuko duzun eta zein diren zure **lehentasunak**.
- Etorkizunean **zein lanbidetan** aritzea gustatuko litzaizukeen.
- Zure **gaitasun eta trebetasunen** garapen maila.
- Zeure **irakasleen eta familiakoen** kontseiluak.

Hori guztia abiapuntu harturik, Araubide Orokorreko Ikasketen barnean, hauek dituzu zeure prestakuntzarekin segitzeko bideak:

## Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua lortu baduzu

### ERDI MAILAKO LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK

Lanbide heziketa zabala eta osoa da (urte bat edo bikoia); **“Teknikari”** titulua lor dezakezu zuk zeuk aukeratu espezialitatean. Hala eginez gero, zure lanbidearen inguruko ikuspegi zabala izanen duzu, kualifikazio hobea eskuratuko duzu –bai lan egin nahi baduzu, bai goi mailako prestakuntza izan nahi baduzu– eta lana errazago aurkituko duzu.

Erdi Mailako Lanbide Heziketako Zikloek (ziklo bakoitza lanbide arlo batekin lotuta dago) “lanbide moduluak” dituzte eta moduluetan eduki teorikoak eta praktikak sartzen dira. Ziklo bakoitzean “Lantokiko Prestakuntza” izeneko modulua sartzen da, zuk zein lanbide arlo aukeratu, horretako enpresa batean zeure ikasketak osatzeko laguntza emango dizuna. Zeure etorkizuneko lanbidean izan dezakezun errealtatera asko hurbilduko zaitu: jakinen duzu nola antolatzen den, zein diren zure erantzukizunak, zein diren segurtasun arauak, zein izanen den lanaren kalitatea, etab.

Ziklo hori gainditzen baduzu, aukera bat baino gehiago izanen duzu:

- Lan bat bila dezakezu –zein lanbide arlotarako jaso duzun prestakuntza, hartantxe– eta lanari ekin diezaiokezu.
- Sarbide proba bat gainditu ondoren lanbide heziketako goreneko mailara jotzea: goi maila.
- Zeure ikasketekin segitzea, hau da, Batxilergoa ikasten hastea.






## BATXILERGOA

Batxilergoa gaindituz gero, goi mailako ikasketak egiteko aukera izanen duzu, bai unibertsitatean, bai lanbide heziketan. Batxilergoko bi kurtsoak gainditu ondoren, **Batxilergoko Titulua** lortuko duzu, hau da, prestakuntza orokor eta zabala, eta, horrez gain, heldutasun maila nahikoa izanen duzu berriro ikasten segitzeko.

Batxilergoak “**modalitateak**” ditu eta horien barnean “**ibilbideak**” daude. Modalitateak hauek dira:

- Arteak.
- Natur eta Osasun Zientziak.
- Giza eta Gizarte Zientziak.
- Teknologia.

Modalitate horietako bakoitzak unibertsitateko karre-  
ra multzo batean edo gehiagotan, edo Goi Mailako  
Lanbide Heziketako Zikloetan du jarraipena.  
Unibertsitatean sartzeko sarbide probak gainditu  
beharko dituzue, baita Arte Plastikoetako eta  
Diseinuko Goi Mailako Zikloetan sartzeko ere.






## **Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua lortu EZ baduzu**

### **LANBIDE HASTAPENENKO PROGRAMAK**

Programa horiek urte batekoak edo bikoak dira eta oinarrizko prestakuntza eta lanbide bati begira orientabide jakina eskaintzen dizute. Lanbide Hastapeneko Programa hauek dauzkazu aukeratzeko, besteak beste, lorigintza, igeltserotza, elektrizitatea, ile-apainketa, ostalaritza, osasuna, automozioa eta abar. Zure eskura daude, zuk zein gustuko, huraxe aukeratzeko.



Lanbide Hastapeneko Programen helburua da oinarrizko eta lanbide prestakuntza erdiestea; hori lortuz gero, hurrengoa egin dezakezu:

- Lanerako hobeki prestaturik izatea eta, ondorioz, lana aurkitzeko aukera gehiago izatea.
- Erdi Mailako Lanbide Heziketa Zikloetan sartzeko aukera izatea, beti ere proba erraz bat gainditu ondoren. Ziklo hori gaindituz gero, Goi Mailakoetan sar zaitezke.

Prestakuntza mota honetarako eskaintza zabala da eta Nafarroako hainbat herritako ikastetxeetan eskaintzen da. Lanbide Hastapeneko argibide gehiago nahi baduzu, urtero foileto berri bat atera ohi da. Foileto horretan aukera guztien berri emateaz gain argibide interesgarriak agertzen dira. Eska ezazu bat zeure ikastetxean.

# Beste ikasketa batzuk

## ARAUBIDE BEREZIKO IRAKASKUNTZA

Orain arte ikasteko hiru aukera desberdin erakutsi dizkizugu: Lanbide Hastapeneko Programak, Erdi Mailako Lanbide Heziketako Zikloak eta Batxilergoa. Horiez gain, badira beste batzuk, "Araubide Berezikotzat" jo ohi direnak. Hauexek dituzu: Arteen Irakaskuntza eta Hizkuntzen Irakaskuntza.

### ARTEEN IRAKASKUNTZA

Kontserbatorioetan eta Erdi eta Goi Mailako Ikastetxeetan irakasten dira, besteak beste, musika, dantza edo pintura. Ikasketa horiek egiteko sarbide proba gainditu beharko duzu. Ikasketa horiek bukatu ondoren Erdi edo Goi Mailako lanbide titulua eskura dezakezu.



Horiez gain, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Heziketa Zikloak ikas ditzakezu. Ikasketa horiek eta Berariatzko Lanbide Heziketak dituen egitura eta titulazioa antzekoak badira ere, gaiak ez dira berdinak eta sarbide proba egin behar da horiek ikasi ahal izateko.

### HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA

Ikasketa horiek Iruñeko eta Tuterako hizkuntza eskola ofizialetan, eta Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialean egin daitezke. Ikasketa horietan parte hartzeko, 14 urte beteak beharko dituzu eta DBHko lehen zikloa bukatuta. DBHn bazaude eta hizkuntzak ikasi nahi badituzu, hortxe duzu eskura "Bigarren Hezkuntzako ikastetxeekin lankidetzan aritzeko Programa". Horren bidez zeure ikastetxean berean ikasi eta azterketa egingen ahalko duzu, hori guztia, Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialarekin koordinatuta.



## Zerbitzuak eta bekak

Ikastetxeak (bakoitzak bere kokapen, tamaina eta instalazioen arabera) zerbitzu hauek eskain diezazkizuke: **jantokia, eskola garraioa, ostatua, kirol jarduerak, aisiarako jarduerak eta abar.** Zerbitzu horien gaineko argibideak Ikastetxeko Idazkaritzan eska ditzakezu.

DBHko lehen ziklorako ez da **bekak** emateko deialdirik; hala ere, **eskolako materiala erosteko** badituzu dirulaguntzak; tramiteak zeure Ikastetxean berean egin ditzakezu.

Urterik urte beken gaineko arautegia alda daiteke; beraz, kasu eman eta galdetu zeure Ikastetxean.



## Argibide gehiagorako

Araubide Orokorreko zein Araubide Bereziko irakaskuntzaren gaineko argibide gehiago nahi baduzu, hiru aukera dituzu: lehena, irakaskuntza mota horri dagozkion foiletoak eskatzea; bigarrena, zeure Ikastetxeko **Orientabide Departamentuan** galdetzea eta, hirugarrena, **Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentukoekin** harremanetan jartzea (nahi baduzu, gurekin hitz egitera etor zaitezke).



Hezkuntza eta Kultura Departamentua  
**Guraso eta Ikasleentzako**  
**Informazio eta Aholkularitza**  
**Bulegoa**

Tel: 948 426 617  
e-mail: soacsc04@cfnavarra.es

[www.pnte.cfnavarra.es](http://www.pnte.cfnavarra.es)



**Argitaratzailea:** Nafarroako Gobernua, Hezkuntza eta Kultura Departamentua  
**Diseinua:** Rebeca Arrarás eta Oscar Aznar  
**Argazkiak:** Larrión y Pimoulier, Photodisc  
**Imprimatzailea:** Linegrafic  
**L.G.:** NA-584-2000  
**Sustatzailea eta banatzailea:** Nafarroako Gobernuko Argitalpen Fondona  
Navas de Tolosa kalea, 21. 31002 Iruña  
Tel. eta faxa: 948 427 123